

Estás en: diariovasco.com > Noticias Más Actualidad > Noticias Cultura > Unamunoren 'Paz en la guerra' nobelaren alde filosofikoa aztertu du Azurmendik

CULTURA

Unamunoren 'Paz en la guerra' nobelaren alde filosofikoa aztertu du Azurmendik

29.05.12 - 02:05 - F. I. | DONOSTIA.

0 Comentarios | **Twitter** 1 | +1 0 | **Compartir** | **Recomendar** 0

0 votos

Joxe Azurmendik 'Bakea gudan. Unamuno, historia eta karlismoa' saiakera-liburua plazaratu du Txalaparta etxearen bidez. Hitzaurrea Joseba Sarrionandiak idatzia da, eta testu horretan gogorarazten du Azurmendiren aurretik Salvatore Mitxelena, Txillardegi eta Txabi Etxebarrietak ere aztertu zutela Bilboko idazle eta pentsalaria.

Azurmendik honela hasten du liburua: «Esaldi bakar batean bil daiteke esateko daukadan dena: Unamunok XIX. mendeko ikuspegiarekin ikusi du eta (b)aztertu du euskal arazoa».

Liburuaren izenburuak iradokitzen duen bezala, Unamunoren 'Paz en la guerra' eleberria (1897koa) hartu du aztergai Azurmendik . Liburu haren «irakurketa filosofikoa» egin du.

«Unamunok faseak izan zituen, eta bere kontraesanekin ulertu behar da hura. Lehenengo fasean nazionalista euskaldun bat izan zen, gaurko hi-tzekin esanda. Gero positibismo ingelesa ezagutu zuen (Herbert Spencer, alegia) eta hain zuzen eskema horrekin interpretatu zituen karlistadak, 'Paz en la guerra'-n ikus daitekenez», esan zuen Azurmendik atzoko aurkezpenean. Zegamarrak, adibidez, Unamunoren esaldi hau azpimarratzen du: «Aquí está la revelación que me fue la historia».

«Orain, Bilbon hor ari dira ba-tzuk esaten Unamuno liberal bat izan zela, baina hori nola esaten dute, mesedez!. Nobela horretan Bilboko liberalak oso gaizki gelditzen dira», gaineratu zuen.



COMPRA UNA HYDRO 5 Y CONSIGUE GRATIS OTRA CON TU NOMBRE

Wilkinson España

TU NOMBRE AQUÍ

Wilkinson SWORD

FREE YOUR SKIN™